

“SANTURTZIKO XXIV. INGURUMEN-LEHIAKETA” ERAENDUKO DUTEN OINARRIAK

1. BALDINTZA OROKORRAK

1.1.- 1994-95-96 urteetan jaiotako pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute lehiaketan, baldin eta Santurtzin erroldatuta badaude, gutxienez urtebeteko antzintasunaz. Udalak administrazioaren kabuz egiaztatuko ditu datuok eta, beraz, ez da errolda-agiririk aurkeztu behar izango.

1.2.- Lanak bakarka edo gehienez binaka egin beharko dira; pertsona edo talde bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du, modalitate bakarrean.

1.3.- Parte-hartzaileek gai honi buruzko lana aurkeztu beharko dute: “ZURE EGUNEROKO BALIABIDE NATURALEN KONTSUMOA”

1.4.- 3 modalitatetan emango dira sariak. Lehenengo saria emango da modalitate bakoitzean eta bigarren eta hirugarren lan sarituak maila bakoitzean.

Honakoak dira 3 modalitateak:

- ❖ **Idazlanak edo kontaketa laburrak:** Gehienez, 10 orrialde izango dituzte eta euskarri informatikoan aurkeztuko dira.
- ❖ **Maketak:** Berauek egiteko material birziklatua edota birziklagarria (ontziak, latak, etab.) erabiltzeko ahalegina egin behar da.
- ❖ **Arte digitala edo ikus-entzunezkoa, marrazkiak, margolanak, argazkiak, eskulturak edo antzekoak**

1.5.- Lanak euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke. Batez ere originaltasuna, gure udalerrria hobetzeko proposamenak eta gure udalerrirako berariazko ideiak balioetsiko dira. Debekatuta egongo da aurrefabrikatutako gai apaingarriak, hala nola, klipak, jostailuzko ibilgailuak, jostailuzko animaliak, jostailuzko pertsonak eta antolatzaileek aurrefabrikatutakotzat jotzen duten beste edozein gai.

1.6.- Oinarriak behar bezala argitara emango dira udalaren web gunean.

2. EPEA

Idazlanak edo kontaketa laburrak

Aurkezteko epea 2012ko martxoaren 7a, asteazkena, izango da, 09:00etatik 14:00etara bitartean. Hirigintza eta Ingurumen Sailean aurkeztuko da (Parke, 10), DYAren ondoko moduluetan, edo e-mail bat bidal idazlanarekin, agendalocal21@santurtzi.net norabide elektronikora.

Maketak. Argazkiak edo arte digitala. Marrazkiak, margolanak, eskulturak, graffitiak edo antzekoak.

Aurkezteko epea 2012ko martxoaren 19a, astelehena, izango da, 09:00etatik 14:00etara bitartean. Santurtziko Sabino Arana kaleko 5. zenbakian dagoen Dorretxean aurkeztu beharko dira. Lanekin batera, gutun-azal itxia aurkeztu beharko da, eta barruan honako datu pertsonalak sartu beharko dira: izena eta bi abizen, jaioteguna, helbidea, harremanetarako telefono-zenbakia eta matrikula zein ikastetxetan egin den; ikasturtea berriaz adierazi beharko da.

Gutun-azalaren kanpoaldean parte-hartzaileen zenbakia eta aukeratutako modalitatea baino ez dira idatziko Lanean bertan ez da parte-hartzaileen daturik idatzi behar.

3. EPAIMAHAIA

3.1.- Lehiaketako epaimahaiak, deliberamendu egokien ondoren, 1.4. ataleko sariak aukeratuko ditu. Kalitatea behar bezain ona ez bada, epaimahaiak sariren bat ez ematea erabaki ahalko du.

3.4.- **Lan saridunak 2012ko martxoaren 26an, astelehenean, 12:00etan,** iragarriko dira, Dorretxean.

3.3.- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek eta antolakuntzaren azken erabakia onartzea dakar.

3.4.- Originala ez den lanen bat edo aurretiaz beste lehiaketaren batera aurkeztu den lanen bat aurkeztuz gero, lehiaketatik kanpo geratuko da, eta pertsona horrek ezin izango du hurrengo urteetan ere lanik aurkeztu.

4. SARIAK

4.1.- Epaimahaiak aukeratutako lanek eta antolakuntzaren eskutik accesita lortzen dutenek **KULTURA BIDAIA** jasoko dute. Sariak banatzeko ekitaldian argituko da bidaia nora eta noiz izango den.

4.2.- Lanak **2012ko martxoaren 26an** eskuratu ahal izango dira, sariak banatu ostean.

5. ERAKUSKETA

5.1.- Lanak **2012ko martxoaren 19tik 26ra bitartean** erakutsiko dira Dorretxean. Ordua geroago jakinaraziko da, Dorretxean.

5.2.- Sarrera dohainik izango da. Arrazoi argiak tarteko, lanak ezin izango dira ukitu, beren-beregi kontrakoa adierazi ezean.

6. ERRESERBAK

6.1.- Santurtziko Udalak aipatutako datak eta oinarriak aldatzeko eskubidea du, baita lehiaketa bertan behera uzteko eskubidea ere.

6.2.- Santurtziko Udalak aurreko bidaiak batean tutore izan diren pertsonenganako begirunerik eta adeitasunik eza erakutsi zutenei saria ezeztatzeko eskubidea du.

6.3.- Saridunek bidaiak antolatutako ekintzen ordutegiak eta antolakuntzak esandakoa bete beharko dute, nahitaez. Adingabeek ezingo dute alkoholik, tabakorik edo antzekorik hartu.

6.4.- Uko egingo zaio antolakuntzaren arauak bete ez dituzten sarituenganako erantzukizunari. Atal hau betetzen ez duten pertsonen bidaiak eragindako gastuak kobratu ahalko zaizkie edo horiek kanpo utzi ahalko dira.

6.5.- Udalak egoki irizten duen moduan erabili ahal izango ditu aurkeztutako lanak.